

DIRU SARRERAK

FastLooking proiektuaren helburu nagusia irudi pertsonala zaintzea erraztea eta pertsona bakoitzari bere ezaugarri fisikoetara eta gustu pertsonaletara egokitutako aholkuak eskaintzea da. Adimen artifizialean oinarritutako ispilu adimendun baten bidez, erabiltzaileek makillaje, arropa eta ileari buruzko gomendio pertsonalizatuak jasoko dituzte, beren konfiantza eta ongizate pertsonala hobetzeko asmoz.



Proiektuak berrikuntza teknologikoa eta eguneroko erabilgarritasuna uztartzen ditu, irudi pertsonala zaintzeko aholkularitza profesionala pertsona guztien eskura jarritz. FastLookingek ez du soilik estetika lantzen, baizik eta erabiltzaileari bere buruarengan seguruago sentitzen laguntzea du xede, esperientzia eroso, irisgarri eta pertsonalizatu baten bidez.

FastLookingen negozio-eredua erabiltzailearentzat ahalik eta irisgarriena izateko pentsatuta dago. Bezeroek **ordainketa bakarra** egingo dute ispilu adimenduna erostean, eta behin erosketa eginda, zerbitzuaren erabilera eta aplikazio mugikorra **erabat doakoak** izango dira. Horrela, ez da hileko edo urteko harpidetzarik eskatuko, eta erabiltzaile guztiek baldintza berdinetan baliatu ahal izango dute zerbitzua.

Proiektuaren **diru-sarrera nagusiak** makillaje, moda eta ile-zaintzako markekin egindako **publizitate eta lankidetzat hitzarmenetatik** etorriko dira. FastLooking ispiluaren eta aplikazioaren bidez, marka kolaboratzaileen produktuak erabiltzaile bakoitzari modu pertsonalizatuan gomendatuko zaizkio, publizitate eraginkorra eta ez-inbaditzailea eskainiz.



Horrez gain, erabiltzaileek gomendatutako produktuak zuzenean aplikaziotik erosteko aukera izango dute, eta erosketa horietatik FastLookingek **komisio bidezko diru-sarrerak** lortuko ditu. Azkenik, ispilu adimendunaren salmentak ere proiektuaren diru-iturri garrantzitsua izango dira, negozioaren hasierako jasangarritasuna bermatuz.

Ondorioz, FastLooking proiektuak helburu sozial eta pertsonal argia duen arren, **negozio-eredu bideragarri eta iraunkorra** du, erabiltzailearen eta marken arteko harreman orekatua sortuz, eta teknologia erabiliz irudi pertsonala zaintzeko modu berritzailea eskainiz.

- **ZERBITZU PUBLIKOAREN ESKAINTZA**

Zerbitzua	Deskribapena	Bezeroarentzako Kostua	Enpresarentzako Onura
FastLooking ispilu adimendunaren salmenta	Adimen artifiziala duen ispilu adimenduna, erabiltzailearen aurpegiko ezaugarriak, azal mota eta estilo pertsonala aztertzen dituen, makillaje, arropa eta ileari buruzko gomendio pertsonalizatuak eskaintzeko.	Ordainketa bakarra: ispiluaren erosketa-prezioa.	Diru-sarrera zuzena ispiluaren salmentaren bidez.
Makillaje gomendio pertsonalizatuak	Erabiltzailearen aurpegiaren, azal motaren eta gustuen arabera, makillaje estilo eta produktu egokienak proposatzen ditu.	Doakoa.	Makillaje marken publizitatea eta komisio bidezko diru-sarrerak.
Arropa eta outfit gomendioak	Erabiltzailearen gorputz-morfologia, koloreak eta lehentasunak kontuan hartuta, arropa-konbinazio pertsonalizatuak sortzen ditu.	Doakoa.	Moda markekin lankidetzak eta komertzialak eta publizitate etekinak.

Ile-zaintzako eta estiloko aholkuak

Ile mota, aurpegi forma eta errutinaren arabera, ilearen zaintzarako eta estilismorako gomendioak eskaintzen ditu.

Doakoa.

Ile-zaintzako marken presentzia eta produktu gomendioen bidezko diru-sarrerak.

FastLooking aplikazio mugikorra

Erabiltzaile-profilak sortu, gustuak gorde eta gomendioak kudeatzeko aplikazioa, ispiluarekin sinkronizatuta funtzionatzen duena.

Erabat doakoa.

Erabiltzaileen esperientzia hobetzea eta publizitate estrategiak optimizatzea.

Markentzako publizitate pertsonalizatua

Ispiluaren eta aplikazioaren bidez, marken produktuak erabiltzaile bakoitzari modu pertsonalizatuan erakusten dira.

Ez dagokio bezeroari.

Proiektuaren diru-sarrera nagusia: publizitate eta lankidetzak hitzarmenak.

Produktuen erosketak zuzena aplikaziotik

Gomendatutako produktuak zuzenean aplikaziotik erosteko aukera eskaintzen da, plataforma seguru baten bidez.

Produktuaren prezioa soilik.

Komisio bidezko diru-sarrerak marka kolaboratzaileekin.